



Berdintasuna

Iruñeko Udalaren Emakumeen eta Gizonen arteko Aukera Berdintasunerako II. Plana 2010eko ekainaren 10ean onetsi zuen Tokiko Gobernu Batzarrak, eta herritarren bizi-kalitatea eta ongizatea hobetzea du xede. Hartara, zeharkako eta ekintza positiboko politikak bultzatzen ditu, gizarte-baldintzak eta -egiturak sortzen laguntzeko, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna egiazkoa eta eraginkorra izan dadin.

II. Berdintasun Plana 8 arlotan dago egituratua, eta guztiek ere elementu hauek dituzte:

Ardatza: talde jakin batekiko jarduketa-esparrua.

Helburua: ardatz jakin batekiko lortu nahi dena

Ekintza: ekintza-ildo bat definitzen duena, helburu jakin batekin bat.

Kontuan harturik Planaren indarraldia lau urtekoa zela (2010etik 2013ra), 2015era arte luzatu zen, balorazio-prozesuaren ondotik. Egoki ikusten da helburuak eta ekintzak urtero jarduketetan zehaztea, epeak, langileak eta baliabide ekonomikoak nahiz teknikoak esleitura. Arlo bakoitzean garatu beharreko jarduketa-multzo horrek osatuko du *Urteko Programa*.

Urteko Programaren jarraipena eta ebaluazioa koordinaziopean egite aldera, eta xede horretarako tresnak eskura jartze aldera, Udalak ENRED Consultoría S.L. enpresaren laguntza teknikoak jaso zuen 2015ean. Atal honetan zeharkako 1. eta 2. arloen gauzapean berri ematen da soilik, biak ere Berdintasuneko Alorraren ardurapean baitaude. Gainerako alorrek garaturiko ekintzak, berriz, zein bere memorian jasoko dira.

1. eta 2. Zeharkako Arloei buruzko informazioa

1. Zeharkako Arloa Aukera Berdintasunaren integrazioa, udal-administrazioan.

1. arloaren helburua Iruñeko Udaleko langileak sentsibilizatu, gaitu eta lanabesez hornitzea da, Udalaren politikek, planek, programek eta jarduketek genero-ikuspegia aintzat har dezaten, haiek diseinatzeko, abian jartzerakoan eta gauzatzeko, Iruñeko emakumei eta gizonei aukera berberak bermatzeko. 2015ean hainbat jarduketa egin ziren honako helburu hauek lortzeko:

1.1. helburua: Behar den antolamendu-egitura edukitzea, Berdintasun Plana bultzatu, garatu, koordinatu eta ebaluatze aldera.

Udalaren antolamendu-egitura izaniko aldatzeko gorabehera, alor desberdinetako Berdintasuneko arduradunak mantentzea erabaki zen, hau da, Planaren Talde Teknikoa, eta talde berri bat izendatzea dago aurreikusia, behin Berdintasunerako III. Plan Estrategikoa onetsi ondoren.

Emakumearen Udal Kontseilua lau aldiz bildu zen ohiko bilkuran 2015eko otsail, martxo, maiatz eta azaroan, eta beste gai batzuen artean, III. Planari buruzko informazioa izan zen aztergai.

1.2. helburua. Planaren ezarpena bultzatzea

Udalak laguntza tekniko baten zerbitzuak kontratatu zituen, 2015. Urteko Programetan sarturiko jarduketaren garapenaren jarraipena egiteko. 2015ean, Berdintasun Plan berria diseinatu aurretik, berdintasunari buruzko kanpo-diagnosia burutu zen, bai eta indarreko planaren gaineko barne-ebaluazioa ere, Berdintasun Plan berria diseinatzeko prozesua hasteara batera. 2015eko lehentasunezko ekintza Berdintasunerako III. Plan Estrategikoa prestatzea izan zen. Lehenik eta behin, III. Berdintasun Planaren esparru estrategikoa zehaztu, eta ondoren, jendarteak parte hartzeko prozesua egin zen; zehazki, teknikariak, politikariak eta herritar mugimenduek parte hartu zuten. Prozesu horren emaitza Berdintasunerako III. Planaren dokumentu estrategikoa izan zen.

1.3. helburua. Udaleko langileak Berdintasunaren gainean sentsibilizatzea.

Udalaren intranetean, online bidezko sentsibilizazio-modulu bat dago jendearen eskura Berdintasun arloaz. Ez dago daturik, ordea, hartan izaniko bisita kopururaz. Berdintasuneko Alorrek garaturiko sentsibilizazio-jarduketa guztiak berriaz bidaltzen zaizkie udal-langile guztiei barne-postaren bitartez, sentsibilizazioaren berri emateko eta hartan parte hartzera gonbidatzeko.

1.4. helburua. Udaleko langile teknikoak eta politikoak gaitzea, genero-ikuspegia Udalaren jarduketan txertatzeko.

Aurreko urteetan bezala, 2015ean ere, Urteko Programa igorri zitzaizkien Berdintasuneko arduradunei posta elektronikoz, hau da, bakoitzari bere esku-hartze arloan dagokion huraxe. Intraneten, gainera, Planaren baitan Marboaren 8aren karira antolatutako jardueri buruzko argibidea argitaratu zen. Halaber, intranetean eskura dago sexu-jazarpenaren eta sexuan oinarritutako jazarpenaren aurkako prebentzio- eta jarduketa-protokoloa.

2015ean, eta II. Berdintasun Planean zer jarduketa garatu zen oro har jakitea errazte aldera, *Berdintasuna egintzen bidez II* izeneko zabalkunde-dokumentua prestatu zen, ikusizko baliabide ugari osatua, udal-alorrek plan horren baitan garaturiko jarduketaren balioa nabarmentzeko. 300 ale argitaratu, eta barne mailan banatu ziren.

1.5. helburua. Genero-ikuspegia udal-jardunean txertatzeko bultzatzea.

Helburu honen barruan barne daude urtero udal-alor guztientzat aurreikusten diren bi ekintza: batetik, berdintasunaren printzipioa mantentzea bai deialdian bai udal-langileen hautapen- eta sustapen-prozesuan; eta bestetik, udaleko informazio-sistemetan datuak sexuaren arabera banakatu beharra.

1.6. helburua: Udal-langileen artean, sexu-jazarpenari eta sexuan oinarritutakoari aurrea hartzea.

Sexu-jazarpenaren eta sexuan oinarritutako jazarpenaren aurkako prebentzio- eta jarduketa-protokoloa, 2013an onetsitakoa, gaztelaniaz eta euskaraz dago eskura Udalaren webgunean. 2015ean ez zen horri buruzko salaketarik izan.

2. Zeharkako Arloa Herritarrei zuzendutako informazioa, sustapena eta sentsibilizazioa.

2. Arloaren xedea da herritarrek kontzientizatzeko eta haien pentsamoldea aldatzeko, honako gai hauekin loturiko balioak zabaltzeko: aukera-berdintasuna; hizkera ez-sexista erabiltzea; norbere bizitza, familia eta lana bateragarri egitea; erantzunkidetasuna; eta zero tolerantzia emakumeen aurkako tratuei aurrean. Halaber, beharrezkotzat jo da emakume iruindarren parte-hartzea sustatzea bizitza sozialean, eta parte-hartze hori ikusaraztea; eta oroz gain, emakumeen arteko asoziazionismoa sustatu eta laguntzea.

2.1. helburua: Berdintasunerako Plana ezagutzera ematea, berriazko komunikazio-programa baten bidez.

2015ean, ez zen kanpo-laguntzarik jaso komunikaziorako, eta Iruñeko Udalaren ohiko informazio-bideak erabili ziren: weba, prentsa-oharrak, prentsaurrekoak, iragarkiak eta publizitatea, e-posta, Compañía Zentroaren alertak, sare sozialak eta Udaleko Youtube kanala.

Horrez gain, Iruñeko Udalak Berdintasun Planaren inguruan osaturiko webgunean, informazioa eman zen Compañía Zentroko ikastaroei eta etxean bizirauteko lantegiei buruz.

2.2. helburua. Herritarrak sentsibilizatzea, gizonen eta emakumeen arteko aukera-berdintasunari dagokionez.

Sanferminetako kanpaina: Por unas fiestas libres de agresiones sexistas - Eraso sexistarik gabeko jaien alde.

2015ean, aurreko urtean bezala, Emakumearen Udal Kontseiluaren *Sanferminak Berdintasunean* Taldeak Sanferminetako kanpaina hori sustatu zuen. Helburuen artean hauek daude: udal-konpromisoan aurrerapausoak ematea festetako eraso sexistak ezabatzeko; jaietan, emakumeendako segurtasuna hobetzea hala jaiguneetan nola hiriaren gainerako lekuetan; herritarrei jakinaraztea zer-nolako baliabideak dituzten eskura jaietan aholkularitza, laguntza, eta eraso sexistak salatze; jendea sentsibilizatzea eraso sexisten aurkako herritarren erantzunak duen garrantziaz, eta pertsonen, elkarteek, taberne, peñek eta abarrek duten ardura partekatuz jaiguneak leku seguruak izan daitezen.

Iruñeak bat egin zuen Nafarroako Familiarako eta Berdintasunerako Institutuak Nafarroako udalei egindako proposamenarekin, hots, festetan indarkeria matxista arbuizatzeko esku gorri bat erabiltzearekin. Kanpaina egokitzeko, zapiz beteriko Udaletxe plazako hondoa erantsi zion eskuari. Ezpain-zapiak, kartelak eta banderolak diseinatu, egin eta banatu ziren balkoietan paratzeko; seinaleztapen-oihalak ere egin ziren; gidak lau hizkuntzatan argitaratu ziren *Indarkeria sexista identifikatzeko, geldiarazteko, erantzuteko eta laguntza eskatzeko modua* izenburupean; halaber, *Festetako eraso sexisten aurkako dekalogo*a azaltzeko txartelak egin ziren, arreta- eta larrialdi-telefonoekin batera, baita esku gorrien irudia duten 15.000 pin ere.

Martxoak 8, Emakumeen Nazioarteko Eguna

Martxoaren 8ko programaren ardatza *Hiriak eraldatzen dituzten emakumeak* izan zen, eta horren baitan honakoak egin ziren: hitzaldiak, mahai-inguru bat, erakusketa bat bisitatzea eta *Iruña, molde femeninoan* argazki-lehiaketa. Gainera, www.pamplona.es webgunean agenda berezi bat moldatu zen, Udalaren eta Iruñeko talde nahiz kolektibo guztien programazioaren berri emateko. Horretarako, orrialdean ageri den galdetegi bat soilik bete behar da.

Udalaren Osoko Bilkurak adierazpen instituzional bat onetsi zuen, Nafarroako Berdintasun Teknikarien Sareak proposaturik. Udalak adierazpenean bere konpromisoa agertu zuen *berdintasuna errealitate bihurtzeko, gutxieneko betebeharrak ziurtatuta berdintasuna politika publikoetan txertatzea bermatze aldera: hau da, borondate politikoa, berezko organismoak eta berdintasun-politikak gizonen eta emakumeen artean, departamentuen eta erakundeen arteko koordinazioa, emakumeen parte-hartzea erabakiak hartzeko prozesuetan, sentsibilizazioa eta prestakuntza genero-arloetan, diru- eta giza baliabideak, eta datuak nahiz estatistikak sexuaren arabera banakatzea. Horrek guztiak esan nahi du begirada berri bat erantsi behar dela bai erakundeetan bai gizarteetan, eta era berean, genero-harremanak jarduketa guztietan aintzat hartu beharra.*

"Oparitu Berdintasuna" Eguberrietako Kanpaina

Eguberrietako kanpaina bat egin zen haurrendako jostailuen aukeraketaren inguruan eta lanarekiko beharrezkoa den erantzunkidetasunaren gainean, Gabonetan lana handitzen baita, mahaia dela-eta, sukaldaria dela-eta, etab. Horren haritik, 500 kartel argitaratu, eta bideo bat banatu zen Udalaren web, sare sozial eta Youtube kanalaren bidez, bai eta sakelako telefonoen bidez ere. Kanpaina mupis-zirkuituetan paratu zen Eguberriek iraun bitartean, bai eta udaletxeko atondoan ere.

Compañía Zentroa

Emakumeen presentzia eta parte-hartze aktiboa sustatze aldera, eta zehazki, eten digitala murrizte aldera, Compañía Zentroan 60 informatika-ikastaro eman ziren hainbat talderentzat, bai oinarritzko mailan, bai maila aurreratuetan: 55 urtetik gorako emakumeak, 55 urtetik beherako emakumeak, emakume-elkarteak, adingabeak eta gazteak. Zentroko Online Informazio Sistemak IKTei eta aukera-berdintasunari loturiko bilduma eguneratu bat dauka eskura; hots, badira dokumentuak, artikulak, web-estekak, software libreko programak, legeria, eskuliburuak. Urtean 4.500 erabilera izan ziren. Compañía Zentroko 247 jarraitzaile ditu FaceBooken, eta 82, Twitterren. 2015ean, 153 argitalpen egin ziren.

Lankidetzat-hitzarmena IPES Dokumentazio Zentroarekin

Udalak lankidetzat-hitzarmena sinatu zuen IPES Dokumentazio Zentroarekin, dokumentazio-zentro espezializatu bat herritarren eskura jartzeko eta haien sarrera errazteko. Hitzarmenari esker, emakumei eta genero-ekitateari buruzko zerbitzu espezializatu gisa finkatu egin zen Iruñean IPES Elkarteko Emakumeen Liburutegia-Dokumentazio Zentroa. Era berean, ikusezina ohi den, sakabanatuta ohi dagoen edo sekulan eman ohi ez den informazioa jarri zen jendearen eskura, edota zenbaitetan, sarbide zailako zentroetan dagoen informazioa ere bai. 518 dokumentu berri eman zitzaizkien alta (liburuak, folioak, ikus-entzunezko materiala edo material elektronikoa), eta 6.336 sarrera izan ziren dokumentazio-funtsean (2.110 kontsulta aretoan; 3.171 kontsulta katalogoan online, eta 1.055 mailegu etxerako).

2.3. helburua: Bateragarritasuna sustatzea, familiako, laneko eta norberaren bizitzari dagokionez, bai eta erantzunkidetasuna ere

Etxeko zereginen aurre egin eta bizirauteko ikastaroak

Etxeko lanetan erantzunkidetasuna eta estereotipoak haustea sendotze aldera, *Nik ere egin behar dut* lantegiaren bi edizio egin ziren, lanak trukatzeko aldera; hau da, eskolak eman ziren gizonentzat sukaldaritza, lisaketaz eta joskintza, eta emakumeentzat, iturgintza, elektrizitateaz eta etxeko brikolajeaz. Talde bakoitzak 16 kide ditu, eta deialdi guztietan, eskura dauden tokiak halako hiru izaten dira eskariak.

Oporretan Haurrak Artatzeko Zerbitzua

Iruñeko familien bizitza eta lana bateragarri egitea sustatze aldera, Haurrak Artatzeko Zerbitzuak jarduerak eskaintzen ditu eskola-oporretan, hau da, Aste Santuan, udan eta Eguberrietan.

2.4. helburua: Hizkera barne-hartzailearen erabilera sustatzea.

Espedienteen gestorean eskura dauden diru-laguntzetarako deialdien txantiloak zuzentzeaz gain, kontratuetarako txantiloetako testuak berrikusi ziren; halaber, langile juridikoen artean, hizkuntzaren erabilera ez-sexistari buruzko orientabideak biltzen dituzten gida batzuk (aurretik argitaratuak) banatu ziren. Posta elektronikoko generikoaren bidez, igualdad@pamplona.es, oharrak eta iradokizunak egin daitezke arlo horri buruz.

2.5. helburua: Herritarrak genero-indarkeriaren aurka sentsibilizatu eta kontzientziatzea

Azaroaren 25aren kanpaina, hainbat jarduera antolatu ziren era bateko zein besteko publikoentzat, hala nola hitzaldi bat (*Indarkeriak sarean. Indarkeria interkonektatu eta anitzak, bikote-indarkeriatik harago*), sarrera libreko *Divinas* antzezlan Balaarten, eta kale-bilkura bat Udaletxe plazan goiburua honekin:

Emakume eta neskatuen aurkako indarkeria mota ororen aurka.

Eutsi egin zitzaion genero-indarkeriaren biktimak babestu eta laguntzeko baliabideen inguruko informazio-guneari Udalaren webgunean. Martxoan bezala, emakume-elkarteek Azaroaren 25eko agendan antolatutako jarduera guztiak Udalaren webeko egutegian sartzeko aukera mantendu zen.

2.6. helburua: Emakumeen arteko laguntza-sareak sustatzea

Iruñeko Udalak 96.000 euro eman zitzaizkien irabazi-asmorik gabeko 17 elkarteri, Aukera Berdintasunaren Plana garatzeko programak gauzatzera bideratutako proiektuak abian jartzeko aldera.

2.7. helburua: Emakume iruindarrak hirian ikusaraztea.

Hainbat espazio publiko izendatzeaz gain, beste espazio publiko batzuk emakume-izenekin izendatzera gonbidatu zituen Udalak entitate publikoak zein pribatuak, emakumeek Iruñeko garapenean arlo guztietan (gizarte, kultura, ekonomia eta politika) bete duten eginkizuna aitortzeko. Emakumearen Udal Kontseiluak kale, plaza eta espazio publikoei buruzko proposamen bat onetsi zuen 2015ean. Nabarmentzekoa da Lezkairuko ipar parkeari *Emakumeen parkea* izena eman zitzaiola.

Martxoaren 8a ospatzeko ohiko lankidetzaz gain, Civivox zentzuen hiruilekoko programazioan *Generoa eta Berdintasuna* izeneko atal bat sortu zen 2013an, eta haren baitan, literatura eta emakumeei buruzko lantegi bat antolatu zen, bai eta heroi feministei buruzko zineforum bat ere.

Azkenik, publizitate sexistak eragindako bi salaketa bideratu ziren, eta biak ere Madrilgo Emakumearen Institutuko Publizitate Sexistaren Behatokiaren webgunearen bidez nahiz Nafarroako Berdintasunerako Institutuaren bidez kudeatu ziren.

Udal-alor guztien gauzapen-datua

Gauzapenari buruzko datu orokorreki begira, aipatu behar da II. Berdintasun Planaren indarraldian 142 ekintza proposatu zirela, 8 arlotan antolatuta. 2015ean, 98 jarduketa programatu, eta 77 gauzatu ziren; beraz, jarduketa guztien % 78,57 gauzatu ziren.

ALORRA	JARDUKETAK BERDINTASUN PLANA	PROPOSATUTAKO GAUZATUTAKO JARDUKETAK (2010)	PROPOSATUTAKO GAUZATUTAKO JARDUKETAK (2011)	PROPOSATUTAKO GAUZATUTAKO JARDUKETAK (2012)	PROPOSATUTAKO GAUZATUTAKO JARDUKETAK (2013)	PROPOSATUTAKO GAUZATUTAKO JARDUKETAK (2014)	PROPOSATUTAKO JARDUKETAK 2015	GAUZATUTAKO JARDUKETAK 2015
1 Aukera Berdintasunaren integrazioa, udal-administrazioan.	24	15/17	19/18	20/19	23/17	20/15	20	14
2 Herritarrei zuzendutako informazioa, sustapena eta sentsibilizazioa.	30	23/20	25/19	24/21	27/20	21/20	19	16
3 Gizarte Ongizatea	23	11/12	18/17	15/15	17/11*	15/13	15	14
Kirola				4/3	4/3	3/2	2	2
4 Merkataritza eta Turismoa	9	5/4	8/5	6/5	7/7	7/6	7	0
5 Kultura	8	7/5	8/6	8/6	8/6	8/6	6	6
6 Hezkuntza	20	12/12	18/9	5/4	6/4	4/2	4	1
Gazteria				8/5	9/6	7/7	7	6
7 Herritarren Partaidetza eta Teknologia Berriak	9	3/2	9/8	9/7	9/7	7/5	7	7
8 Harremanak inguruarekin:								
Herritarren Segurtasuna	19	5/7	7/6	5/5	6/6	6/6	6	6
Mugikortasuna				2/1	5/3	2/2	1	0
Hirigintza				6/2	6/2	2/2	2	2
Garapen Iraunkorra				2/2	2/2	2/2	2	2
GUZTIRA	142	81/79	112/88	114/95	129/94	104/88	98	77

Ez dago eskura informaziorik programatutako 4 ekintzaren gauzapenaz.